

HIZKUNTZA POLITIKA. Gaztelaniazko seinale elebakarrak aldatzen ari dira



LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Kale errotulazio elebiduna, azkenean, Iruñean

Iruñeko Udalak kale errotulazioa aldatzeari ekin dio egunotan, eta atzo bertan zamaketa lanak egin ahal izateko ordutegiak eta oinezkoendako eremuak zehazten dituzten seinaleak ordezkatu zituen Alde Zaharrean. Aurreko errotulazio elebakarrak, beraz, euskaraz eta gaztelaniaz jarri behar izan ditu berriro Udalak, egun indarrean dauden

ordenantzei jarraiki. 2000ko abenduko foru dekretua onartu zenean, Iruñeko Udala izan zen bere errotulazioa aldatzen lehena, baina erabaki horien kontra jarritako helegite guztiak irabazi dute gero epaitegietan. Iazko martxoan, zamaketa lanetarako seinaleak eta Marceliano Etxea gaztelania hutsez errotulatu zituen Udalak.

HERRI LANAK. Teknikariek ez zuten eman iritzirik eskaintzaren gainean

Gazteluko Plazako lanak nahierara eman zirela ebatzi du Auzitegi Nagusiak

Epailleentzat, Iruñeko Udalak ez zuen aski arrazoitu bere erabakia, eta baliogabetu dute

Alberto Barandiaran | IRUÑEA

Iruñeko Udalak ez zuen behar bezala argudiatu Gazteluko Plazako aparkalekurako lanen esleipena, eta esleipen hori bertan behera utzi dute, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak hala erabakita.

Epaitegiko administrazio gaietarako gelak ebatzi du Udalaren azken erabakia; lanak Estacionamientos y Servicios S.A. enpresari emateko, ez dago nahikoa justifikatuta, eta hainbat irregulartasun antzeman ditu esleipenaren sinaduran.

Aparkalekua egiteko lanak oso aurreratuta daude, eta oinarrietan porlana botatzen ari dira jada. Herri lan horrek oso polemika handia sortu du Iruñean, besteak beste, azpian ondare arkeologiko oso garrantzi-

tsua agertu delako. Aparkalekuaren aurkakoek hainbat salaketa jarri dituzte Udalak eta Vianako Printzea erakundeak hartutako erabakien aurka. Orain erabaki den esleipena lehiaketan sartu ziren beste bi enpresek jarri zuten.

Erabakia hartzeko irizpideak ez dira agertzen

Administrazio gaietarako auzitegi nagusiak frogatuztat eman du udal teknikariek ez zutela inolako txostenik eman beren balorazioa argudiatzeko eta, hala ere, 2001ko martxoaren 21ean lanak egiteko enkargua zuzenean Estacionamientos y Servicios S.A. enpresari eman zitzaioela.

«Baina», dio epaileen erabakia, «aurkeztutako bakoitzaren eskaintzaren balorazioa ze-

hazteko zer irizpide erabili diren ez da inon ere agertzen, eta ez dira konparatu eskaintza guztiak. Analisia egiteko, arlo bakoitzean zenbat puntu eman diren eta azken sailkapena nola gelditu den baino ez da esaten.

Epailleen esanetan, horrelako lehiaketa guztiak eskaintza onenaren irizpidearen arabera erabaki behar dira, «baina kasu honetan abantailazko eskaintza kontzeptu juridikoa hutsik dago».

Epailleek azpimarratzen dute erabakia hartzerakoan enpresen kaudimenaz txosten ekonomikoa baino ez dela izan. Hala ere, lehiaketan parte hartu zuten gainontzeko kideei ez die zuzenean lanak esleitzeko eskubidea onartzen, «gela honek ez dituelako horretarako irizpideak».

Batasuna eta Batzarreko zinegotziek atzo bertan iragarri zuten azalpenak eskatuko dituztela Udalaren Hirigintza Batzordean.

EUSKARA. Erraz ikasteko metodoan egina

Euskal aditzaren logika frantsesez esplikatzeko duen liburua kaleratu dute

Nora Arbelbide | BAIONA

Euskal aditza frantsesez esplikatzeari lotu zaio Michel Etxebarne irakaslea. Aditza batua «bere estrukturan eta logikan» aurkezten du *Aditza* Elkar argitaletxeak kaleratu liburuan.

Euskara ikasten ari diren gazte eta helduentzat «eskuragarria eta pedagogikoa egiten» ahalegindu dela azaldu zuen Etxebarnek. Euskara dakitenek aditzaren logikaz duten ezagutza barnera dezakete haren iduriko. Liburua eraikitzeko bere irakasle esperientzia erabili du.

«Frantsesa irakatsi dut bulta batez Mexikon, frantsesa batere ez dakitenei.

Hori dela eta, heldu batek hizkuntza nola bereganatzen duen ikusteko aukera» ukan du. Hori bera erabiltzen ahalegintzen da. Frantses estruktorekin konparatzen du aditza, hain zuzen.

Liburua bitan zatitu du. Lehen zatian aditzak esaldian duen lekua beste elementuen ondoan analizatzen du. Bigarren zatian aditz jokoak tauletan jarri du. Artean, alokutiboari leku berezi bat eskaini dio. Sortzez zuberrotarra da ikertzailea, han arras naturala da forma hori.

Orain arte argitaratu diren metodo liburuak oinarritzat hartu ditu, gaurkotu eta sinplifikatu duen Piarres Lafitena, besteak beste.

Bageraren 10. urteurrena ospatzeko antzezlan

N.R | DONOSTIA

Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak 10 urte bete ditu, eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu. Ospakizunen ardatza Koldo Izagirrek idatzitako *Astoaren irrintzia edo Donostia maitagarria* antzezlan izango da. Datorren larunbatean egingo da Antzoki Zaharrean arratsaldeko 20:00etatik aurrera.

Horrekin batera, beste bi ekitaldi izango dira larunbatean bertan. Antzezlan amaitu ostean, Gastronomika elkarteak, urteurren afaria egingo dute bagerakideek. Afalostean, berriz, Kasketak Kabareta taldeak *Neskapolitan* antzezlan eskainiko du.

Astoaren irrintzia edo Do-

nostia maitagarria antzezlan Joserra Fachadok eta Anartz Zuazuak zuzendu dute. Haien arabera, «ironiaz beteriko obra da, antzezlan da ezerean aurretik, ez da agerpen historiko edo pedagogiko bat». Ironia antzezlanaren izenburutik bertatik hasten da; hala azaldu zuen Fachadok: «Astoaren irrintzia. Astoek ez dute irrintzi egiten, arrantza baizik. Hor dago lanaren gakoak».

Beste askoren artean lanean, Ramon Agirre, Oscar Terrol eta Klara Badiola ariko dira. Beraiekin batera, Trebeska dantza taldeko dantzariak ere izango dira.

Bagerak egiten dituen ekimenak aurrera eramateko, bazkideen laguntza «derri-gorrezkoa» dela azaldu zuten elkarteko kideek.



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Antzezlanaren zuzendariak eta Bagerako kideak, atzo.